



2019 EUSKAL KAZETARITZA SARIEN 8. EDIZIOAK BI GARAIKUR GEHIAGO IZANGO DITU

Fotokazetaritza eta ingurune-kazetaritza sari berriekin batera, guztira zazpi izango dira datorren azaroaren 5ean Bilboko BBK Aretoan banatuko diren garaikurrak

Euskal Kazetariaren Elkarte eta **Kazetariaren Euskal Elkargoaren "Euskal Kazetaritza Sariak 2019"-en** emate ekitaldia, **BBK**, **Euskaltel**, **Ihobe** eta **Grupo Logi-aren** babesarekin eta **Bilboko Udaletxearen** laguntzarekin, BBK ARETOAN burutuko da (Kale Nagusia, 19-21, Bilbo) azaroak 5, asteartea, arratsaldeko 19:00-etan.

Aurtengo festako berritasuna orain arte banatu ez diren bi sari berrien sorrera izango da, "Fotokazetaritza" y "Ingurune-kazetaritza", ohikoak diren garaikurretara gehitzen direlarik: "Euskal Kazetaria", "José María Portell Adierazpen Askatasunari", "Ibilbide Profesionala", "Pertsonaia edo Giza Instituzioa" eta "Kazetaritza Digitala".

"Euskal Kazetaritza Sariak" **Euskal Kazetariaren Elkarteak** eta **Kazetariaren Euskal Elkargoak** antolatuta, urtean behin banatzen dira eta kazetari-lanbidearen garrantzia nabarmendu nahi dute informazioaren profesionalen lanaren bidez.

Sari hauek jaso dituzten irabazleetako batzuk Manu Leguineche, Sarita Estévez, Iñaki Gabilondo, Mikel Ayestaran, Jon Sistiaga, Ane Irazabal, César Coca ("Euskal Kazetaria"), Gervasio Sánchez, Carmen Sarmiento, Terry Gould ("José María Portell Adierazpen Askatasunari"), Joxe Mari Iriondo, Iñaki Iriarte edo duela gutxi zendu den Mariano Ferrer ("Ibilbide Profesionala") izan dira.